

# 1972 : Liburuaren nazioarteko urtea

UNESCOren ahaleginei esker, hasi berri dugun urte honetan, liburuaren urtea ospatzen da lurbira osan. Jokabide honekin, liburugintzari bultzada bat eman nahi zaio, munduan zehar, baitipait liburugintzan atzeraturik doazen herrietan. Eta horretarako, lehendabiziko pausua, arazo notan dadukagun eskasiaren eta behararen kontzientzia sortaraztea da.

Güttenberg-ek inprenta asmatu zuenetik, liburuak izan da gizakumeen arteko komunikabiderik hoberenetako eta erabilienetako bat. Eta gaur ere hala da, eta luzaroan hala izanen delakoan gaude, nahiz-eta, etorkizunari buruz, eztabaida asko sortu, bereziki telebista eta gainontzeko ikusgailuak hedatu direnez gero.

Urte hau delata, arinki bada ere, puntuxo bat edo beste ikutu nahi nuke. Bat, hirugarren munduari dagokiona, baina gure arazotik hain urrutik ez dena. Eta beste, bestea Euskal Herriko gaurko egoerari molda dakiokiena.

## HIBUGARREN MUNDUA ETA LIBURUGINTZA

Hirugarren mundua, mundu haizaren aurreratuaren menpekierarik gorrienean dagoela baieztetan, ia beti politikari eta ekonomiar buruz ari gara. Baina kolonialismoa ez da fenomeno politiko solala. Neokolonialismoa ez da ekonomia mailan bakarrik gertatzen.

Kulturazko menpekuntza bat ere bada, ahaztu ezina. Liburugintzaren banaketa aipatzea aski da, horretaz derrenfente jabetzeko.

Hogei eta hamabi lurralde aurreratuek (Europa, Errusia, Estatu Batuak, Kanada, Australia, Zelanda Berria, Japoni), alegia, munduko bostgarren hirutik bat baino gu-

tiago osatzen dutenek, urtean zehar munduan azaltzen diren 80 % liburu egiten dituzte. Hau da: la-reun mila titulu, eta zazpi mila miloi ale.

Gainontzeko herriek oro, baltzan harturik, larogei eta hamar mila titulu eta zazpireun miloi ale baino gutiago argitaratzen dituzte. Gegera dezagun munduko % 70 bizilagun hor direla, eta munduko % 50 nagusi alfabetatu, eta eskola-garaian dauden munduko % 55 haur ere bai.

Alde ikaragarria, ikusten denez.

Itzulpenaren aldetik arazoari orantzen badiogu ere, ondorio beretsuetara hel gaitezke.

Munduan egin ohi diren itzulpen guztietatik, % 72 ingesetik, frantsesetik, errusotik eta alemanetik datoz. Eta Hego-Ameriketako espainol hizkuntzakoak kenduz gero, hazpidean diren herrietako hizkuntzetatik % 3 bakarrik itzuli ohi da.

## LIBURURIK PREMIAZKOENAK

Kulturaz oraindik erabat nagusitu ez den edozein herri, bere liburugintzaren planteamentu bat egin nahi duenean, hiru liburu-sail jo behar ditu oinarritzotzat.

Hiru liburu-mota hauek, Euskal Herrian ere beharrezko ikusten ditut.

Lehendabiz, eskola-liburuak.

Gure artean azken urteotan ikastolaren alde eginikako borroka ezaguturik, ez dugu denbora gehiago galdu behar herri baten hizkuntza eta kultura aurrera eramateko, eskola dela biderik aproposenetako bat azpimarkatu nahiz.



Liburuaren urtea ospatzen da aurten lurbira osan.

Eskola, ikastola, erakunde errespetagarria da (baina ez dezagula ahaztu, errespetua eskatu ez baino irabazi egin behar dela, luzaro irauan dezan nahi badugu). Gure eskolan, tekstuak falta dira, bai irakaslearentzat eta bai ikaslearentzat. Nik espontaneisnearen fruitu honetan ez dut gehiago sinesten. Arrisku handiegia da, etorkizunari buruz, eguneroko eskola-gaia sortu, asmatu eta eratu beharra irakasleari eskatzea. Asmamenen laster agortu ohi da. Eta, gainera, inor salatuz gabe baina itsu izateko eskubiderik ez dugunetz gero, zenbait irakasleren preparaziorik-eza ere kontuan eduki behar da.

Liburugintzaren bigarren behar-rra, haurren edo gazteentzako liburuak egitea da.

Ohiturazko animalia omen da gizakia. Irakurtzeak ere ohitura —eta nolakoa!— eskatzen du. Hain zuzen ohitura hori, irakurtzeko zaletasun hori, sortzeko eta behin betirako sartzeko eskatzen da haur eta gazte horientzako gai diren liburuak egitea.

Hamalau urteko mutiko edo neskatok zer irakur lezake, egun, euskeraz?

Hirugarren premia: hazientzako, nagusientzako, irakurgal orokarrez, egindako liburuak.

Herri batetako gizonek mila gus-

to diferente dute, mila zaletasun. Horiek denak kontuan edukitze-koak dira. Eta jendea irakurtzera jarri nahi badugu, jende horren zaletasun eta beharkizun guzti horietaz liburuak sortu eta sortu egin beharko ditugu.

Baina euskaldunok, nere ustez, fedegizon gara, dotrina bat edo beste izan. Eta horregatik, liburu bat egitea penisatzen dugunean, beti tesis bat defenditzeko da (ipuin arloan ez denean). Irakurlea guregana ekartzea baino gehiago ez ote dugu irakurlearengana joatea pentsatu behar?

Irakurgal orokarrez eginikako liburuak argitaratzen ez baditugu, ez da ikusten nola luzarora alfabetatzeak irau lezakeen. Zeren-eta, alfabetatzeari gagozkiola, ez da aski beti hizkuntza gora eta hizkuntza behera ibiltzea. Azken urteotan ezagutu dugun giroagatik hala jardun izanik ere hizkuntza irakastea alfabetatzearen lehendabiziko maila da, alfabetatzearen lehenengo pausua. Bigarren maila, beste hau da: gauzak, hizkuntza horretaz baliatuz, irakastea. Horrela bakarrik salba ditekete, nere ustez, euskeraren premia, eta geroa.

## DEI BAT

Liburuaren urte internazional hau, gure egoera aztertzeko, etorkizunari buruz liburugintza pres-

tatzeko, programatzeko, dei bat bezala hartu behar genduke.

On hitzake, urtea ospatzeko, jai bereziren bat eratzetik balego. Baina beti iraupenari begira, askoz ere onuragarriago litzake, hiru premia horiek gocean harturik, programazio-eredu oso bat egin ahal-ko balitz. Eta zergatik ez?

Hau guzti hau antolatzeko, Euskaltzaindiari azken hitza ez baino lehen hitza eskatzen diogu orain-gean, alegia, iniziatiba berak har dezala.

Joan Mari Torrealdai

